

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak bere eginkizuna bete dezan, hau da, dagozkion funtzioak bete ditzan, funtsezko jarduera batzuk ditugu betetzeko. Jarduera giltzarri horiekin gure enpresaren irabaziak eta askotariko bezeroekiko harremanak berma ditzakegu.

Gure enpresaren funtsezko jarduerak honako hauek izango lirateke: arazoak konpontzea, plataformako edo sareko plataforma, banaketa eta aplikazioaren kudeaketa. Jarraian banan banan azalduko ditugu.

- Arazoak konpontzea: Gure negozioaren oinarria janaria etxez etxe banatzea da, horrela gure bezeroen mugikortasuna erraztuz. Bestalde, edonork ez du denborarik bere janaria prestatzeko, ez lanagatik, ez ikasketengatik. Kasu horretan, guk konponbide azkarra eta eraginkorra bermatzen dugu, bakoitzaren beharrak asetzeko eta bere arazoei irtenbidea emateko.
- Plataformako edo sareko plataforma: Gure bezeroen arazoei irtenbidea emateaz gain, gure enpresak deitu gabe eskaera errazten duen aplikazio bat du. Aplikazio honen bidez, bezero bakoitzak bere erabiltzailearengana jo ahal izango du eta zer enpresa motarekin lan egiten dugun ikusi, eta, horrela, une oro bakoitzari gehien gustatzen zaiona aukeratu eta eskatu ahal izango du.
- Banaketa: Gure enpresak etxez etxeko banaketa-zerbitzua ere badu. Hori motorren laguntzarekin egiten dugu, gure banaketa-orduak txandaka banatuz.
- Aplikazioaren kudeaketa: Gure aplikazioa kudeatzeko, gure lankide Aimar daukagu, informatikan lizentziaduna eta modu egokian kudeatu dezakeena. Lan hau zaila izango balitz, Andrea eta Ainhoa gure lankideen laguntza ere lortu ahal izango luke.

